



ESKUALDEKOEK EGINIKO FILM BERRIA LASTER

Eneko Aritzaren Lagunak elkartekoek amaitu dute 'Sua' filmeko grabaketekin; estreinaldia gero eta gertuago dago >4-5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2008-01-20**

VIURTEA 1.341 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Txapeldunen txapeldun da Zeberio, Lizaso garaitu ostean

ELDUAIN Atzo lehiatu ziren Galarretan, frontoi luzeko eta motzeko buruz-buruko txapeldunak 6



Atzoko Lizartzako inauterietako hainbat une, A. IMAZ

LIZARTZAKO EKIN HASI DA MOZORROEN FESTA GURE ESKUALDEETAN

LIZARTZA Atzo hasi ziren inauteriak Lizartzan; dena den hilaren 25a, 26 eta 27a izango dira egitarauaren egun nagusienak 7



Atzo eman zuten prentsaurrekoa Tolosan, A. IMAZ

AHT geratzea eskatu dute Aralar, Ezker Batua eta ezker abertzaleak

TOLOSALDEA Bat egin dute larunbaterako deitu duten AHTren aurkako manifestazioarekin 7

Atzoko azoka lasaia izan zen, baina eskaintza oso ugaria

TOLOSA Lehenengo baratxuri freskoak agertu ziren 7

Elkarretaratzea bihar, Iruñean emakumea erail izana salatzen

TOLOSA Emakumeen Mundu Martxak deituta 3

B Blogteka **Kalderero, Danborrada eta Inauteri kontzertua lurreamendi egoitzan**

Tolosako Musika Bandak urteroko kontzertu emango du gaur, lurreamendi egoitzan, bertan daudene eskainia.

Ekitaldia 11:30ean hasiko da Udal Txistulari Bandak euskal doinu batzuk eskainiz, tartean Inauterietakoak daudela. Ondo-

ren Musika Bandak Kaldereroetako, Donostiako Danborradako eta Tolosako Inauterietako doinu ezagunak eskainiko ditu entzuleen gozamenarako. Iurreamendi egoitzan bizi direnez gain, beraien senideak eta herritar guztiak ere gonbidatuta daude jai giroko kontzertu honetara.

Tolosako Musika Banda

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/banda>

**S Soka motzean****«Haurrarekin batera familia berri bat jaioko da otsailean»****LAIDA ETXEDONA**

Langilea

ASIER IMAZ

Sabelaren barnean koloreen mundu berri bat dakar Laida Etxedonak (Ibarra, 1978). 8 hilabete iragan dira eta txikiarekin otsailaren 5rako egin du zita.

Zein kolorekoa tokatuko zaizu?

Urdina; baina, berdea gustatuko litzaidake.

Kolore ugari inguraturik heziko da beraz.

Bai. Haurrari koloredun bizitza opa diot.

Zein koloretakoak izan dira azken zortzi hilabete hauek?

Kolore alaiak. Baina beltz ukituak ere agertu dira.

Zein da aitaren kolorea?

Hori bai dela asmatzen zaila. Urdin edo more elektrikoa esango nuke.

Txuria dagoen lekuan beltza dago. Txikiaren goxotasuna dagoen lekuan...

Buruhauste asko, ordu asko,... baina bizitza ez da bi kolorekoa bakarrik.

Otsailean, haurra bakarrik jaioko al da?

Haurrarekin, aita, ama, amona... otsailean famili berri bat jaioko da.

Badira bi zilborrezte: haurra jaiotzean mozten dena eta...

Aurrerago mozten dena; baina, aldi berean zailagoa dena mozten.



ASIERIMAZ

A Argazki zaharra**Autoen arteko talka, Alegian, 1936. urtean**

ALEGIA • Atzera egingo dugu, eta urte asko gainera. Izan ere, 1936. urteraino joko dugu, 72 urte atzera, hain zuzen ere. 1936 urteko martxoaren 16koa da goian ikus dezakegun argazkia. Bertan, bi autoren arteko talka ikus daitezke. Alegian gertatu zen istripua eta nabari den

bezala, ikusmira handia sortu zuen, jende ugari gerturatu zelarik. Garai hartako autoak nolakoak ziren ikusteko parada badugu, beraz, argazki zahar honekin. Jesus Elosegik eginiko argazkiekin Aranzadik ateratako liburuan topa daitezke horrelakoak. ¹JESUS ELOSEGUI 1907-1979 LIBURUA

Afizioa ofizio



» Uzturretik

Iraitz Lizarraga

Azkenean iritsi naiz etxera, lau egun hortik zehar lanean ibili ondoren: lo gutxi eginda, nekatur eta motxilan arropa zikin mordoak dudalarik... A! Eta labadotza jartzen hasteko inolako asmorik gabe. Astelehen arratsaldean muntaia, asteartean bi emanaldi, desmontajea, beste herri batera bidaiatu, berriz ere muntaia, asteazken goizean emanaldi, desmontajea, bidaiatu, montajea, emanaldiak ostegunetan eta handik, zuzenean entseaztera.

Hauxe da antzezlearen bizitza! Beno, gauzak ondo doazenean noski; okerragoa baita batere lanik gabe egotea. Eta honela, sofian eserita loaren kontra borrokan ari naizela ditxosozko ofizio, bizibide, lanbide edo dena delako hau kuestionatzen hasi naiz. Afizioa

Afizioa zaletasun izaten hasi zen, denborapasa; pixkanaka pasio bihurtu zen, eta ondoren afizio

Kanpotik hain polita eta glamurosoa dirudien munduak alde ilunak ditu, edozein lanbidek bezala

Gurean, arte eszenikoen egoera zein den ikusita, ez da harritzekoa aktoreek denetarik egitea

zaletasuna izaten hasi zen: denborapasa, lagunekin ondo pasatzeko modua, jolas bat azken finean. Pixkanaka pasio bihurtzen joan zen eta ikasteko gogoia piztu zitzaidan; pausoka pausoka afizioa zena ofizio bihurtu da... orduetik asko aldatu dira gauzak!

Kanpotik hain polita eta glamurosoa ikusten den antzerkiaren mundu honek baditu bere alde ilunak, edozein lanbideren moduan. Inolako ziurtasunik ez izatea da okerrera: gehienenez hemendik bihilabetera izan dezakegun lana jakin dezakegu, eta irabaziak ere honen arabera doazenez, diruarekin malabareak egin behar izaten dira egonkortasun minimo bat lortu nahi bada. Furgoneta deskargatzeak eta montaje amaigabeek, zerikusi gutxi dute glamourarekin. Ordubeteo antzezlanak lan handia izkutatzen du atzean; profesional mordoak aritu beharko luke lanean: argi eta soinuteknikiariak,

elektrizistak, tramoistak... baina geure herrialde honetan arte eszenikoen egoera zein den ikusita ez dabatere harritzekoa lan hauek guztiak ondoren taula gainean ikusiko ditugun aktoreek egitea. Gainera, geure *pasioa* eta «guk aukeratu dugun lana» denez, gustu handiz eta batere kexatu gabe egin behar izaten dugu, gure esfortzu guztia merezi baitu arte honetara.

Egia esan, hotz-hotzean pentsatzen jarrita, inuxente aurpegia izaten zait nire ez dagozkidan eta hala ere egin ditudan lanen errepasoa eginda. Nere lanbide, ofizio, afizio, pasio, obsesio honekin burua hausten jarraitzen dudana bitartean telebista piztu dut deskonektatzeko; xebe-talde bat etxe batean entzerraturik nola moldatzen den ikusi dugu, famatu mordo bat hotel batean, milaka gazte euren abeslari izateko ametsa betetzeko karreran, modelo eskola bat... orain guztiok eskusibaba: Gaizte talde bat profesionaltasunera eta ospera eramango dituen musikala! Eta betikoa, casting amaigabeak hiri ezberdinetan, jarlar, urduritasuna, lagunarteko animoak, semeari indarra emateko 500 kilometro egin dituen familia, izerdia, nekea, malakoak... Eta epaimahaia: orain badirudi modan dagoela epaile zorroztaren irudia ematea: profesional izateko disziplina beharrezkoa dela apimarratzen dute behin eta berriz, ordu asko egin behar direla dantzan euren ametsa bete nahi badute, oztopo asko gainditu behar direla, bidean gauza asko galtzen direla... Eta tarteka, iraina: audientzia puntuak mantentzeko osagaririk garrantzitsuena; berdin dio bere ametsa betetzeko asmotan etorri den gaztearen istorioak, berdin dute sentimenduek... hala majo edo maja! Zuri tokatu zaizu eta matxakatu egingo zaitugu: hori ez omen da dantza egitea, aurpegi polita izatearekin ez zaizula aterik irekiko mundu honetan, hobe duzu beste gauza bati ekiten badiozu, zertara etorri zara hona, ez al dizu lotsik ematen koreografia hori aurkeztea, diziplina falta zaizu... zer da ba diziplina? Ilusioz beterik datorren gazte bat negarrez irainduta uztea? Argidago espektakuluaren ezinbesteko osagaia dela hau, telebista aurrean geure atentzioa mantentzera eramaten gaituena; «Ai ama, mutiko gaixoa nola geratu den, ene! Nola esan diote hori? Aizu, tipa hori pasatu egiten da, ezta?». Eta, berriro ere, partaideen alkoak, onartuak izan direlako edota kalera bota dituztelako, malakoak...

Castingmania garaia dira: aukeraketa prozesuaz espektakulua egitea lortu dute eta are gehiago, partaide bakoitzaren bizitzaz ere espektakulua egin nahi dute. Aktoreek eta dantzari berriz cast-

tingfobiaz hitz egiten dugu. Bizitza profesionalerik momenturik txarrenak castingetan bizitzen dira, horrexegatik ezin dut ulertu nola montatu daitekeen sekulako showa casting-en inguruan. Laster empresari talde bat ikusiko dugu epaimahai lanetan eta lan-gabean izan dagoen jende mordoak lan entrebistak egiten... edo dagoeneko asmatua al dago hau?

Oinarrian dago mota honetako saioren akatsa: dantza maite duen edonoren ametsa honelako musikak batean parte hartzea dela pentsatzen hain zuzen ere: Dantza mugimendu ederra baina askoz gehiago da nire ustetan: eritimoa, abiadura, musika eta azken finean gorpuztaren mugimenduaren bidez espresatzea eta komunikatzea. Mundu hau askoz ere serioagoa da; milaka profesional dabil-tza izkutan inurri lana egiten, ikuskizun bat aurrera aterata ahal izateko: subentzioak eskatzeko zientoka paper betetzen, dantza-rekin zerikusirik ez duten lanetan ordu extrak sartzen, leku kaxkarrerenetan entseatzan... baina, ilusioz beterik eta seriotasun osoz, ditxosozko akademia horretan arituko diren gazte horien moduan, ordainetan publiko txiki ba-

Castingmania garaia dira; aukeraketa prozesuaz ikuskizuna egitea lortu dute

Dantza mugimendu ederrak baino gehiago da; horien bidez komunikatu behar da

Dantza eta antzerki ikasketak ofizializatuz eta eskola egokiak sortuz hasi behar dugu lanean

ten txalo lotsatiak jasoz. Egin dezatela nahi dutena telebistan, dagoeneko mugaguztiak gaindituak dituzte eta, norbera libre da saio horiek ikusi edo ez ikusi erabakitzeo, baina, dantza eta arte eszenikoen munduaz ematen duten irudi faltsuak erretzen nau, zori-txarez populazioaren zati handi batek sinetsi egingo baitu. Eta egia esan zerikusit gutxi ikusten dit saldu nahi diguten arte eszenikoen ideia honekin eta bene benetan lan honek suposatzen duenarekin.

Halaxe egingo dute aurrera arte eszenikoen gure herrialde maite honetan: mota honetako programak ugalduz eta bertan formatzeko inolako aukerarik gabe. Egoera dagoen moduan ez da harritzekoa gabe batek «ama, aita dantzari izan nahi dut» edo «aktore izan nahi dut» esatea, guraso gaixoak dardarka hastea. «Bueno, bueno... ze txoro haizek gu dizu?». Edo «oso ondo... zuk ikasi ingeniari-tza

eta arratsaldeetan izen eman antzerki tailerretan edo balletean» erantzunik ez zaizkit batere harritzekoak iruditzen.

Zorte pixka batekin arte eszenikoetan profesional izatera iristen denak topatuko duen egoera ez da batere erakaragarria: ziurtasunik eza, lan baldintza kaxkarrak, kontraturik gabeko lanak, erotzeko moduko ordutegiak... A! Eta gaixotzea ezin zaigu burutik pasa ere egin... badakizue, «The show must go on». Berdin dio zein den diagnostikoa, anginak, gripea, barizela, esgintzeak, lepoko minak, lumbalgia... Baxa bat hartzea utopia bat da mundu honetan: gaixo bazau eta epe luze arko bada, kaxkari onenaren, ordezko bat jarriko dizute, baina, ahaztu zaitez baxa kobratzeaz!

Eta zer esan jubilazioaz... agian, Lina Morgani zeozer tokatuko zaito, baina aktoreen gehiengoak ez dute uste pulamentuzko jubilazio bat izateko adina kotizatu dutenik. Nondik hasi egoera honi aurre egiten? Nire ustetan eta batere zalantzarik gabe, bizitza honetan ia guztiak bezalaxe, formazioetik hasi beharra dugu. Dantza eta antzerki ikasketak ofizializatuz eta eskola egokiak sortuz. Gaur egun Euskal Herrian ez dago inolako ikasketak eskaintzarik arlo hauetan. Gazteek kanporajo behar izaten dute eta behin ikasketak kanpoan burutu ondoren, hemengo lan merkatua batere erakaragarria ez denez, gehiengoak nahiago izaten du kanpoan jarraitu.

Ondorioz, bertan proiektu berri-tzailerak aurrera eramane beharkeko lituzkeen jende mordo dispersatu egiten da, hemen, betikoketik betikoa egin jarraitzen duten bitartean. Badirudi, arlo honetan egoera aldatzear dagoela, arte eszenikoetako goi mailako ikasketarako zentroa irekiko baitute Bilbon, gehienez ere 2009rako. Bazen garaia!

Baina zentroa sortu ondoren ere, lan handia geratuko da egiteko: lan baldintzak hobetzea, Antzoki sare egokia osatzea, konpainia egonkorrak... Eta garrantzitsuena, iniziatiba eta ausardia handia behar izango dugu, pixkanaka proiektu berri-tzailerak bultzatu eta pausoz pauso antzerki eta arte mota berri bat ikusi ahal izango duen ikusleago hezitzeko. Badirudi, mantsa bada ere, bide ona hartzeko bidekan gaude la.

Hasieran kepez beteriko gogoa zena baztertu eta neure buruan balantza alde positiborantz bultzatzea lortzen ari naiz. Lan honetan ilusioz eta aurrera begira jarraitzeko esperantza piztu zait berriro. Nire alde erromantikoak irabazi du: arte honetako esfortzu guztiak merezi ditu eta ni oraingoz lanean jarraitzeko prest nago. Ea berdin pentsatzen dudana bihar, gaueko ordubietan aukoz puntan, hotzez dardarka, furgoneta kargatzen ari naizen bitartean. Oso glamurosoa baita furgoneta deskargatzea.

Elkarretaratzea bihar, Iruñean emakume bat erail izana salatuzko

Tolosa » Triangulon izango da, 19:30ean, Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxako Plataformak deituta.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxarako Plataformak elkarretaratzea deitu du bihar, 19:30ean Tolosako Triangulo plazan. Iruñean gertatutako emakume baten erailketa salatuzko.

20 urteko emakume bat hil zuten atzo Iruñean gizonezko batek, eta honen aurrean kalera irteteko deia egin dute Plataformako kideek, «ezin dugulako ixilik geratu». Erailketa, emakumeen aurkako indarkariaren ondorio larriena-tokoa dela azaldu dute, «baina ezin da ahaztu, ixilpean igarotzen diren beste hainbat eraso pairatzen ditugula emakumeok, gizon eta emakumeen arteko harreman jerarki-koen ondorioz. Emakumeok gure eskubide guztien jabe izan behar dugu».

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Herrialde. Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarrain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain. Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leizta. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbola: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930
GARRIAKO.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosaldea bus: 943 650621
Leitzarain autob. : 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leizta): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Iurramendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320



«Merezi izan du bizitako giroagatik. Zoritzarrez inkisizio istorioa egi bilakatu dute aurten ere»



«Bizipen berri eta oso aberasgarria. Errealitate bihurtu dudana amets ahaztezin bato»



«Espèrientzia izugarri bat. Pelikulako Algotarko lagunak askatu, inkisizorik ez!»



«Asteburu gogorak izan dira, baina zapora bikaia uzten zutenak. Laster faltan botako ditugu»



«Pelikularen bidez ezagutu dugu elkar eta giro irekian asteburu ederak pasa ditugu»

ONKATZ GOENAIGA
Zuzendaria taldeko kidea eta aktorea

ITZIAR SAIZAR
Aktatza

JON GURUTXAGA 'BILI'
Taldea lehiakideko kidea

GAIZKA IBAIONDO
Lanitze inkisidona

MARI TXU GARZIA
Garaiz

Algorita, Ibarra, eta Tolosaldeako gazteek osatzen dute Eneko Aritzaren Lagunak Kultur Elkarte. 'Eneko Aritza, Orreagako Guda' film laburraren ostean, 'Sua' filmaren grabaketak amaitu berri dituzte. Estrenaldia gero eta gertuago ikusten dute.

'SUA' -K ERRE DU BIGARREN EGURRA

ASIER IMAZ
Hambost egun zituen Sua filmaren grabaketan par- te hartu zuzenean. Jada hirugarren urtearen bigarrena muti-ko pottokoa. Lehen Eneko Aritzaren Lagunak trikiena zen, gaur egun baslira pitagorak, baita bide- an daudenak ere.

Hasiere: bigarren egurra
Eneko Aritzaren Lagunak erre dute bigarren egurra: amaitu dira grabaketak. «Gidoiaren kin ziar noiz hasi ginen ez dakigu. EALren lehen proiektua amaitu ondoren izango zen zuzirenik, edo agian oraindik. Eneko Aritza, Orreagako Guda amaitu gabe zegoela. Kontuak kontra, lehen egurra, Sua-ren gidioa, oraindik ongi erre gabe ze-

goela hasi ginen bigarren egurra erretzen 2005eko maiatzaren 21ean. Ia hiru urte igaro diren honetan, EALko kideek hirugarren egurari heldu diote, montaketa lanari: «grabaketak amaitu ditugu eta orain irudirik montatzen gelditzen zaigu. Estrenatuan sarriko azken urratsa da, baina lan gogorra eta la- zea dugu oraindik aurrerik. Asier Itzaguirre, taldeko artistaren eska- daide irudirik orain. Ia hiru urte hauean Euskal Herri guztian ze- har grabatuari zentzu piska bat ematen ari gara. Ondoren musika sartuko dugu eta agian ahoabakiozina tokamako zaigu, ez dakigu ziar, dertorak esango du- skok galdetzen digute noiz izan- go den estrenaldia. Gul: 2008an

izaten nahiko genuke, baina zaila izango da».

Korapiloa: «bidea gara»
Sua filmeko irudirik Euskal Herri-ko lurralde guztietan grabatu di- tuzte, txoko eta eskualki guztietako jendea ezagutzeko. Legazpiko (Gipuzkoa) herri baten hasi ziren grabaketekin. Ondoren, Gorriti (Nafarroa), Berastegi, Lizartza, Al- gortza (Bizkaia), Hendain (Lapur- di), Maule (Xiberoa) eta abar luze- hat etorri dira, asteburu ugari, aste- an zehar lana tokatzen baita. «Txoko guztietako jendea bildu dugu eta asko gogatu dugu horre- kin. Asteburu luzeak izan dira, le- hertuta bukatzen gurean, baina alai: belanaldi desberdinetako jendearekin asteburu desberdina- k».

egiten gaituztela. Euskarak Eus- kal Herrian mugirik ez duela lasi eta ikasi dugu. Bizipen oso aberas- garria izan da eta finen hori gara- egin dugun eta egien ari garen bi- dea».

Kilometro askoko lana egiten ari- dira EALko kideak eta euskaraz egiten dute, baina filosofia berri bat ere eragiten du: «sakok ez ditugu beste hizkuntzak ongi menperatzen, ez behintzen pelikula bat egiteko adu- na. Euskaraz bukatzea helburu? Ederaz entzuten bagaitzuz ez ze- nuke horri galdetuko».

Bikaina domak bidean egiten du eta baita atek zabaldu ere, nahiz eta patritikan zuloa izan. «Sua peli- kulatikustera domak ez du Estatu Batuetako filmekin kalitate iru- kituko. Baina ez dira zinegile asko

egungo harro-harro jo eta barre- nak puza-puza eginda ibiltzen direnik, edo hainbeste lore jaso- tzen dituztenak gu bezala txapu- zero boturak izanda. Produktzio handiek aktore onak edukiko di- tuzte, kamara ezin hobekak, kristo- renoketnak, baina inoiz ez dituzte 20 lagun mendian izugarriko ple- suarekin gora eta behera, gora eta behera ibiliko kantuan, alai, lane- rako gogorekin eta gasolina eu- ren pottokotik ordainduz. Hor dago gure perfekzioa. Zerbateko aurrekontua da hori?».

Amaiere: amaiere?
Trilogia edo hirugarren proiektua, azken funtzioa ote da Sua, «em- tza zaharrezale»-Eguren haldi krea- tiboak deituko dira».



«Zoritzarrez inkisizioak aurrera darrai; Gufi eta Aner adibide»

EALko kideak Sua entzuzen, irri- far batez begiratu eta erantzuten dizute. Une bat igaro ondoren, zer- bait oker doala ikusten duzu. Be- gietako alaietan sunaren diazira gal- tzen doa eta zer gertatzen den gal- detzen duzu. Zer gatik al daketa hau? «Zoritzarrez inkisizioa erreali- tate bilakatu da. Zoritzarrez inkis- izioak aurrera darrai, Gufi eta Aner dira horren adibide».

EALko kideen egoera azaldu eta salatu nahi izan dute, «horrela egingo baitugu joaten garen leku guztietan. Berdin dio bertso saso- baton izan, herri bakarrak baton edo komunikabide batean izan. Filmeko bi anai behitu eta tortura- tu dizkigute beste ehunka lagunen artean. Pelikulako bi lagun handi- kartzean sartu dizkigute, justizia in- justizia egin du berriro ere; peli- kularen zati bat espeteratu digu- te».

Sua pelikularen Eneko Aritzaren Lagunak 1607. urteko inkisizio is-



Aner Mimenza eta Lander Labajo, espeteratutako EALko bi kide.



gute. Etorzizumean atzera begira- tu eta gaur gertatzen ari dena ikas- ten dituzten, galdara bat egingo dute: eta hauek zer egin zuten? De- nok dakigu nortzuk diren hauek horiek, baita euren ere».



«Edozein kulturak herri mugimendua behar du bizirik irauteko. Horretan ederrak pasa ditugu»



«Abentura polit bat. Leku politik ezagutuz, harenan eginaz eta buruhausteak sortuz»



«Etxean ogia egitea bezala da. Maitasun handiarekin eta osagai naturalarekin gailtza»



«Zuzendaria nahiko kaxkara, baina niri irabiagailuak gustatzen zaizkit; ondo egon da»



«Belanaldi arteko topagunea. Euskarazko produktu naturala»

UNA IGARITUA
Produktore taldeko eta Urteko jantziak

MAITANE BERSTEIN
Jantzi taldeko eta aktorea

XABIER AZKUE
Iole

EKAITZ BAOLA
Iñaki

JEXUX PEÑAGARIKANO
Apatza





Patxi Zeberio, JOSEBA ZABALZA/BERRIA

Patxi Zeberio txapeldunen txapeldun Lizaso menperatu ondoren

A. IMAZ

Frontoi luzeko eta motzeko bi buruz-buruko txapeldunak lehiatu ziren atzo Hernaniko (Gipuzkoa) Galarretan. Bi txapeldunen arteko lehia honek lehen edizioa zuen eta bertan Patxi Zeberio nagusitu zen, Lizasori 35 eta 27 irabazita.

Casino Kursaal Torneoko irabazleak, hasera-haseratik hartu zuen aurrea eta bost tantu inguruko abantailari gogor lan eginaz eutsi zion, amaieran frontoi motzeko irabazlea garaitzea lortu zuelarik.

Jokatu den binakako txapelketan Patxi Zeberio elduaindarra ez da batere ongi ibili baina buruz-burukoan aurkaririk ez duela erakutsi zuen atzo Galarretan.

Lizartzan zabaldu da eskualdeetako aurtengo inauteri denboraldia

Inauteriak » Urtarrilaren 25etik 27ra bitarte, mozorroek, bazkariek eta kalejirak hartuko dute txanda herrian.

ASIER IMAZ

Hasi dira inauteriak eskualdean, izan ere, Lizartzan atzo eman zieten hasiera mozorroen festari, nahiz eta urtarrilaren 25etik 27ra burutuko dituzten ospakizun gehienak. Hauen ostean etorriko dira beste herrietakoak, hau da, Leitzakoak, eta Tolosa eta gainerako herrietakoak.

Atzokoan, herritarrak eta inauterietako aukeratuak izan ziren Udal Ordezkariek herriko plazan elkartu ziren 12:00etan. Otsolar taldeko dantzariak eta antzerki emanaldia ikusteko aukera eduki zuten lizartzarrek bertan, gibela dastatzen zuten bitartean.

Dantza taldeko txikiak bien bitartean giro bikaina jarri zuten ikusleen gozamenerako. Batek baino gehiagok lanak izan zituen bikotearen urratsak jarraitzen edo buru gaineko txapela bere lekuan mantentzen. Eguzki epel bateko-



Inauterien lehen egunean, Udal Ordezkeri berriak eta haur zein gazte dantzariak izan ziren protagonista. ASIER IMAZ



xaturik, jendeak algara ederrak egin zituen, txalo zaparrada handien aurretik.

Mozorrozurik agertu zirenen artean, alde batetik Udal Ordezkeriak aurkitzen ziren mahai baten

inguruan ardo botilez inguratutik eta dotore-dotore jantzirik, herriari ohitura den bezala. Bestalde, musikarien artean, indioak, mekanikoak, arabiarrek eta abar aurkitzen ziren.

Bigarren asteburua

Urtarrilaren 25ean, ostiralean, 14:15ean eskolako haurrek mozorro festa ospatuko dute, ondoren, kalejira batean herriko kaleak zeharkatuko dituztelarik.

Hilberriak eta urteurrenak

MIKEL GARMENDIA MENDIBURU

Atzo hil zen 41 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Emaztea: Lurdes Intxausti; semeak: Gari eta Danel; gurasoak: Mariano eta Geneveva; anai-arrebak: J. Manuel eta Gurutze Mendizabal, Enkarni eta Pablo Garatxalde, Amaia eta Juanjo Saralegi, Joseba eta Ainhoa Galparsoro, Olatz eta Endrika Villanueva; ezkon anai-arrebak, osaba-izebak, ilobak, lehengusak eta gainerako ahai-deak. Haren animaren alde otolitz bat eskatzen dizuetue eta arren etor zaitzela GAUR IGANDEA, eguerdiko HAMABIETAN, Mikel Goiaingeruaren parroki elizan, gopura bertan dela egingo den hiletara. Aidez aurretik, mila esker.

Helbidea: Bi-Kabi etxea.

Oharra: Gorpua Idiazabalgo udaletxean egongo da, 9:00etatik aurrera



IDIAZABAL
2008ko
URTARRILAREN 20a

MIKEL GARMENDIA MENDIBURU



Hitzik gabe gaxik.
Eskerrik asko.

Idiazabalgo Udala

Oharra: Gorpua Idiazabalgo udaletxean egongo da, goizeko 9:00etatik 12:00etara.



IDIAZABAL
2008ko
URTARRILAREN 20a

MIKEL GARMENDIA MENDIBURU

Nahiz aizkoran nahiz trontzan edo ta ibiltzen, gure erreferente laister egin hiltzen; Orain berriz zergatik ez segi bizitzen? Erantzunik ez eta guztiz gaituk mintzen, ta hire giran segi nahi diagu biltzen.

Idiazabalgo Herri Kirol Taldea



IDIAZABAL
2008ko
URTARRILAREN 20a

MIKEL GARMENDIA MENDIBURU



Beti langile betiko lagun, beti leial eta hitzeko. Herri kirola aitzakia zan, lagun artean biltzeko. Izango degu arrazoiaren bat Mikel zutaz oroitzeko. Enbor batetik ezpal zati bat harrotzen den bakoitzeko.

Soziedadeko koadrilla



IDIAZABAL
2008ko
URTARRILAREN 20a

MIKEL GARMENDIA MENDIBURU



Euskal Herri aske bat lortze bidean hire aizkorakadak jarraituko dizkiagu. Adiorik ez Mikel.

Izalgo Ezker Abertzalea



IDIAZABAL
2008ko
URTARRILAREN 20a

MIKEL GARMENDIA MENDIBURU

- Goian bego -

Gureganako beti izan duzu irrifarrea ezpainenat, irudi hori gordeko dugu beti gure barrenetan.

Aita Iparragirre Herri Eskolako komunitate osoa



IDIAZABAL
2008ko
URTARRILAREN 20a

MIKEL GARMENDIA MENDIBURU

Zein zaila den persona on eta umil bat maitatzean gure arteko lotura ear hori etetzeta zñ egiten diagu hiri ikasitakoa jarraitzea beti egongo haiz gure ezkerreko bihotzean

Orendaingo Gazteak



ORENDAIN
2008ko
URTARRILAREN 20a

MIKEL GARMENDIA MENDIBURU

Kosta egiten da gero arte esatea gure motorra izan den kideari lekzio ederrak eman dizkiguk bai beti eta bai besteari ikaragarri eman diok Orendaingo sokatira eta herri kirolari fiña eta jatorria izan haiz jarraitu beharra zaukeau hire bideari

Orendaingo Herri Kirol taldea



ORENDAIN
2008ko
URTARRILAREN 20a

3. urteurrena OIER IRIARTE ZABALETA (2005eko urtarrilaren 21a)

Libre etorri zinen eta libre joan, baina beti egongo zara Oier gure ondoan

Bihar, ASTELEHENA, urtarrilaren 21ean, 19:00etan, LEITZAKO SAN MIGEL ELIZAN bere aldeko elizkizuna izango da.

Zure familia



LEITZA
2008ko
URTARRILAREN 20a

Azoka egun lasaia izan zen atzokoa, baina eskaintza handiarekin

Azoka » Eskaintza oso ikusgarria izan zen; aurtengo lehenengo baratxuri freskoak ikusi ahal izan ziren.

PABLO ALBERDI

Azoko azoka eguna lasaia suertatu zen oso. Behe lainoa eta hotza izan ziren nagusi goiz osoan, eta erosleak goiza ondo sartu arte ez ziren azokara gerturatu.

Eskaintza ordea oso ikusgarria izan zen. Neguko barazkiak puri purian daude, eta zerrenda geroz eta ugariagoa suertatzen ari da. Atzo nobedade bezelaaurtengolehenengo baratxuri freskoak ikusi genituen Berdura plazan, eta dirudieneg datozen asteetan ugaritu egingo dira.

Atari kalean giro polita izan zen atzo. Erosleek eta bisitariak bazeuden postuetan, eta batzuk erosten eta besteek beraien zalantzak argitzen, goiza pasa zuten. Eskaintza joan den asteokoa izan zen, eta datozen asteetan mantendu egingo da.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza Landareak		
Landina	10,00	-
Ziklamena	5,00	2,20
Erromeroa	4,00	6,00
Gerbera	12,00	-
Biola	3,00	-

Bertako produktuak Fruta

Errezil sagarra	0,80	8,00
Mizpiradia	3,00	-
Pikua	2,00	-
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Azenarioa	1,20	7,00
Tomatea	2,00	4,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Dilistak	2,40	-
Kalabaza	1,60	3,04

AHT geratzea exijitu dute Aralar, Ezker Batua eta ezker abertzaleak

Gizartea » Datorren larunbaterako deitu duten manifestazioarekin bat egiten dutela adierazi dute.

ERREDAKZIOA

Tolosako Aralar eta Ezker Batua eta Tolosaldeko ezker abertzaleak bat egin zuten atzokoan ondorengo esatean: «AHT egitasmo antisozial, antiekologiko, baliabide xahutzaile eta Euskal Herriarentzat guztiz desegokia da. Proiektu hori gauzatuz gero, inpaktu ekologiko itzela eragiteaz gain, eragin oso bortitza izango du gizarite eremuan».

Hala, prentsurrekoan azaldu zutenaren arabera, Abiadura Handiko Trenak «kalte ekologikoak eragingo ditu: barrera efektua, zarrata, paisaiari eraso, lurren okupazioa, energia-kontsumoa biderkatzea... dakarrelako». Lurralde desoreka sortuko duela ere adierazi zuten, «izan ere, hiriburuen arteko lotura besterik ez du egingo, eta kalte larriak eragingo dizkie nekazaritza eremuko bizimodu eta bizi-kalitateari».

«Gutxi batzuek erabiliko dute»

Tren garraioa zerbitzu publiko eta unibertsala den ideia lurperatu egingo duela AHTk esan zuten,



Atzo eskaini zuten prentsurrekoa Tolosako Aralar eta Ezker Batua eta Tolosaldeko ezker abertzaleko ordezkariak. A.I.

«ibilbide eta salneurriak aintzart hartuta, gutxi batzuek erabili ahal izango baitute».

Bestalde, ondorio ekonomikoak ekarriko dituela proiektuak adierazi zuten; «azken gastua 6.000 milioi euro ingurukoa izango da, eta horrekin populazio osoaren zati kalitatezko garraio publiko finantzatu eta beste behar askori erantzutea posible da».

Trafiko arazoak

Halaber, AHTk ez dituela garraio arazoak konponduko berratsi zuten. «Hirietan bakarrik geratuko da, eta ez ditu eskualde barruko joan-etorriak ahalbidetuko; eta

bestetik, ez dio errepideetan dabil-tzan kamioi-kopuruaren urteko hazkuntzari aurre egingo; AHT azpiegitura-plan erraldoi baten parte da, eta negozio den heinean garraioaren hazkundera mugagabeki bultzatzea helburu duen parte». Hala, «gero eta desoreka ekotz kalitatezko garraio publiko handiagoak bultzatzen dituen eredu ekonomiko eta soziala» indartuko duela ere gehitu zuten.

«Inposatutako egitasmoa»

Hiru alderdietako ordezkarien esanetan, «inposatutako egitasmoa da AHT, eta inolako informazio eta parte-hartzerik gabe eta

kaltetutako herri eta eskualdeetako herritarren eta biztanleria osoaren bizkar ari da gauzatzen».

Hori dela eta, datorren larunbatean, hilaren 26an *AHTrik ez! Inposaketarik ez!* lelopean izango den manifestazioarekin bat egiten dutela adierazi zuten, erakundeetako ondorengo exijituz: «AHT egitasmoa berehala gelditu dezatela; AHTren ondorio ekologiko, sozial eta ekonomikoen berri eman dezatela eta gure herriarentzat nahi dugun garraio, lurralde-antolaketak eta herri-ereduaren inguruko eztabaida sozial sakona egiteko aukera eman dezatela, herritarren erabakia errespetatuz».



AHTren «eraginak» ezagutzen

TOLOSALDEA » Oargi, Alpino eta Haitzetan Rajuk antolatuta, Tolosako Triangulotik abiatuta mendi marxa egin zuten atzo goizean 20 lagun inguruk. AHTk Tolosan izango duen ibilbidea erakutsi zien AHT Gelditu! elkarlaneko kideek, eta horrez gain, «zer kalte eta eragin izango dituen» azaldu zuten. Hala, azaldu zuten, «kaltetu batzuekin egon gara, eta ez dutela informaziorik proiektuaren inguruan esan dute». Ondoren bazkaria egin zuten Oargi elkartearen. A. IMAZ



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Zelai taberna
(Berastegi)
alokatzen da
606 74 24 08

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. 656 41 68 08.

Tolosako Iurreamendi Egoitzak zaintzaile bat kontratatu nahi du, aldi baterako, errelebo kontratuaren bidez.

Deialdi honen oinarriak eta eskaera orri normalizatuak Iurreamendi Egoitzako bulegoetan daude (Tolosako Iruña etorbideko 6an) interesdunen eskuaren. Eskaerak aurkezteko epea 2008ko otsailaren 9an bukatuko da.

Tolosan, 2008ko urtarrilaren 10ean Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaria Sin.: Jokin Bildarratz Sorron

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Etxebizitza, Bidebieta auzoan, gutxi eraberritua.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza, Kale Nagusian, igogailuarekin.
Salgai (Tolosa). Garajeak, San Frantzisko eta Leidor azpian.
Salgai edo Alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.
Alokatzeko (Tolosa). San Frantzisko, lurre eta Araba etorbidean.
Alokatzeko (Ibarra). Pabilioi industrialak, Leaburu bidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16



13°
9°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS. EURIA
BEROENA 14°
HOTZENA 9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta
Leizaldek beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

San Sebastian Eguna

- **Berastegi.** Meza izango da 11:00etan San Sebastian baselizan.
- **Leaburu-Txarama.** 11:00etan meza; ondoren dantzarien saioa; 12:30ean hamaiketako Zazpi Bide; 16:00etan haurrentzako joakoak eta gero txokolatada.
- **Orendain.** 10:45ean txistularien kalejira San Sebastian ermitaraino, 11:00etan meza bertan, ondoren hamaiketako udaletxean eta 14:00etan bazkaria Eltxo elkartearen.

Kontzertua

- **Tolosa.** Udal Txistulari Bandak

eta Tolosako Musika Bandak ohiko kontzertua eskainiko dute lurreamendi egoitzan 11:30ean Kaldarero, Danborrada eta Inauteri doinuekin.

Kirola

- **Tolosa.** Ero Etxe elkartean XXI. Krosa San Frantzisko ibiltokian eta Alde Zaharrea 11:30etik aurrera, infantil, kimu eta haurren mailan.

Erakusketa

- **Alegia.** Jubilatuen taberna Ana Jesus Ansorenaren zeramika lanak daude ikusgai hilabete osoan zehar. Asteartetik igandera bitartek.
- **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketa Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** Jabier Villarreal Armen-

darizen Paralelo 42 argazki montajean erakusketa Aranburu Jauregian.

Deialdiak

- **Altzo.** Candanchura eskiatzera joateko autobusa antolatuta dute, 3 euroren truke. Izena udaletxean eman behar da (943 65 24 13). Otsailaren 10ean joango dira 06:30ean ateraz. Izena emateko azken eguna, otsailaren 1a izango da.
- **Tolosaldea.** Sahararrei laguntzeko janari bilketa hurrengo astean amaituko da. Aurten, arrosa, hegala, dilistak, azukrea eta konpresak utzi behar dira. Tolosaldeko hainbat herriko udaletxe, Kultur Etxe eta ikastetxetan utzi daitezke. Baita supermerkatuetan ere.
- **Altzo.** Udaletxean ENHA trami-

tatzeko aukera dago. 15 euro, 3 argazki eta errolda agiria behar dira horretarako.

- **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketarako izen-ematea Aranburu Jauregian egin daiteke, asteartetik larunbatera 17:30etik 20:30era.
- **Anoeta.** Hilaren 26an egingo den Dantza sokaren azken entsegua datorren ostiralean izango da, hilaren 25ean, Edurka pabilioian 19:00etan.

Zinema

- **Tolosa.** *Encantanda. La historia de Giselle* gaztetxoentzako filma, 17:00etan, Leidor aretoan.
- **Tolosa.** *Deseo peligro* filma, gaur 19:30ean, eta bihar (ikuslearen eguna) 20:30ean, Leidor aretoan.
- **Villabona.** *Bee movie* gaztetxo-

entzako filma, 17:00etan, Gurea antzokian.

- **Villabona.** *Deseo peligro* filma, gaur 19:30ean, eta bihar (ikuslearen eguna) 21:30ean, Gurea antzokian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
- **BIHAR**
- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Mikaela Zabala Goñi (Txarama). Bihar 86 urte. Zorionak eta muxuak familia guztiaren partetik.



Urte askoan!

Harriet Martin Kortajarena (Zizurkil). Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Zorionak!

Xuban Otero (Anoeta). Gaur 5 urte. Muxuak etxekoan eta batez ere Maddiren partetik.



Zorionak!

Izaskun. Zure urtebetetzean muxu bat etxekoan eta iloben partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

hitza **aren eskutik**

G PUNTUA
GIPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2007

Finaleko DVDa
Finaleko bertsaldi hautatuak

Hitzaren harpidedunentzako eskaintza berezia **6 €**
Deitu: **902-82 02 01**

hitza TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

ingeniaritza **IMH Ingeniaritza Eskola**

Goi-mailako HEZIKETA ZIKLOA egin ondoren nahi baduzu...

- Ingeniaria izan eta ardura postuetan aritu
- Lan esperientzia lortu ikasten ari zaren bitartean...

... zaitoz IMH Ingeniaritza Eskola ezagutzera!

Ate irekiak: Urtarrilak 26
Goizeko 11:00etan

IMH Ingeniaritza Eskola
Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tfn. 943 74 82 64 ingeniaritza@imh.es
www.imh.es/ingeniaritza-eskola

ikasten ala lanean?
kasi eta guztira lan egiten du!

CESI Formazioa 2007